

MO ehun markarekin**EROSKI-K COVID-19AREN BIRUSA EZ-AKTIBO
UZTEN DUEN LEHEN MASKARA SALDUKO DU**

- Portugalgo Sonae enpresak garatu du, eta lankidetzaz hitzarmen bat dauka EROSKIrekin bere ehun marka merkaturatzeko
- MOxAdTech maskarak arrakastaz gainditu ditu João Lobo Antunes Medikuntza Molekularreko Institutuak egindako probak, eta, hala, lehena bihurtu da birusa ez-aktibo uzten
- EROSKI bere sare komertzialean dauka maskara

Elorrio, 2020ko uztailaren 30a.- [EROSKI](#)k, MO markarekin, lehen ehun maskara merkaturatu du COVID-19aren gaitza eragiten duen sars-cov-2 birusa ez-aktibo uzten duena. Aurpegiko babesgarri hori Portugalen egin dute, eta arrakastaz gainditu ditu [João Lobo Antunes Institutu Molekularrak](#) egindako probak

Hornitzaileak emandako informazioaren arabera, efizientzia handiko maskara berrerabilgarri bat da, eroso eta iragazgaitza, estalki berritzaile bat duena, SARS-CoV-2 birusa neutralizatzen baitu ehunarekin kontaktuan jartzean; eragin horrek irauten du 50 aldiz garbituta ere.

Informazio tekniko ofizialak dakarrenez, aurpegiko maskara hori ehun teknikoz eginda dago, eta geruza bat baino gehiago ditu; gainera, urari sartzea eragozten dion tratamendu bat du, eta horrekin bakteriak eta birusa neutraliza ditzake maskarekin kontaktuan jartzean.

Kanpoko partikulak arnastetik babesteko ziurtagiria ere badauka, haren zuntzak/mailak partikulei kontzeko gaitasun handia baitute. Horretaz gainera, produktu honek [OEKO-Tex](#) ziurtagiria du, erakusten baitu produktu kimiko kaltegarriarik ez duela jasan fabrikazio prozesuan; hortaz, giza ikuspegi ekologiko batetik, ez du kalterik egiten. Maskara hori Portugalen diseinatu eta ekoitzi dute, eta enpresaren, zientziaren eta akademiaren munduko zenbait eragilek sortu dute elkarrekin arituta; horien artean dago [Sonae](#) Fashion eta modaren sektoreko haren minorista [MO](#), zeinarekin EROSKI hitzarmen bat egin baitzuen orain urtebete ez dela haren ehun marka merkaturatzeko.

MOxAdTech maskara 9,95 eurotan dago EROSKIren sare komertzialeko saltokietan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)